

KONTROL MOZIOA

Uliako askaldegikafetegia, Basollua, dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urriaren 20an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2009an Donostiako Udalak 450.000 euro inbertitu zituen Basollua elkartearena zen eraikina berritzeko. 2011n egokitu eta askaldegikafetegi zerbitzua emateko lizitazioa egin zuen.

2011n egindako hitzarmenaren arabera, kontzesioa hamar urtetarako egin zen, beste hamar urtez luzatzeko aukerarekin. Baina 2020an, hau da, hamar urteak bete aurretik, kudeatzaileak kontratuari uko egin zion. Horretarako, negozioaren egoera ekonomiko txarra eta kontratuan ezarritako kanona ordaintzeko ezintasuna alegatu zituen.

Uliako askari-kafetegia itxi zenetik hiru urte bete ondoren, 2023ko apirilean kudeaketa berrirako lehiaketa atera zuen Udalak. Lehiaketak aurreikusten zuen kudeatzaileak 90.000 euro inguru inbertituko zituela higiezina egokitzeko. Eta gainera, hilean gutxienez 3.000 euroko kanona ordainduko zuela gehi fakturazioaren % 2. Kontzesioa hamar urterako aurreikusita zegoen eta lehenengoa kanona ordaintzetik salbuetsita geratuko litzateke. Lehenengo hamarkada igaro ondoren, kontzesioa urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez bost urtez.

Baina Basolluako askaldegia kudeatzeko lehiaketa hutsik gelditu zen. Enpresa bakar bat ere ez zen aurkeztu Uliako ostalaritza instalazioaz arduratzeko.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horri guztiari buruz galdetu genuen 2023ko irailean eta zinegotzi arduradunak adierazi zuenez, interesatu batzuk Basolluari buruz galdetu zuten, baina ez zen inor aurkeztu. Orduan, zinegotzi berak aitortu zigun asmoa zela lizitazioaren baldintzak aztertzea, behar zena egokitzea eta lehenbailehen lizitazio berri bat ateratzea beste baldintza berri batzuekin.

Udal Gobernuak adierazpen horiek egin zituenetik 2 urte pasa dira eta guk dakigula ez da beste lizitazio berririk atera.

Hori dela eta, honi buruzko galderak egin genituen azkeneko batzordeetan.

Udal Gobernuaren hitzetan, ez da erraza bideragarria den proiektu bat zehaztea eta pleguak berrikusten eta lantzen ari direla esan zigun hurrengo hilabeteetan lizitazioa ateratzeko.

Lizitazioaren baldintzei buruz galdetuta, Udal Gobernuak argi esan zuen ostalaritzarako jarduera izan daitekeela Basollua, antza ezin dela bestelako jarduerarik burutu bertan. Ondorioz, baldintzak egokitze eta malgutze aldera, interesa izan dezaketen ostalaritzako enpresekin harremanetan izan dira epe luzera bideragarria izan daitekeen proiektua zehazteko.

Ostalaritzarako ez den beste erabilera baterako aukerei buruz galdetu genuen batzordeetan eta ez genuen inongo erantzun zehatzik jaso. Hau da, ezin izan genuen jakin, zerk debekatzen duen edo oztopatzen duen ostalaritzarako erabilera eskusiboa ez den beste ezer egitea Basolluan.

Udal Gobernuak argi utzi zuen proiektua bideragarria izan behar duela, baita ere irisgarria, baina EH Bildutik diogu, Basollua, Uliako askaldegi-kafetegia, parke natural batean kokatua dagoela eta ezinbestekoa litzatekeela baldintzak berrikusteko orduan kontuan izatea emango zaion erabilerak ingurunea errespetatuko duela, hau da, proiektua ingurumenarekiko jasagarria izango dela.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Gure ustez, zerbitzuaren, naturaren eta ingurunearen artean oreka bat egongo dela bermatu beharko litzateke. Basollua, ez dadin soilik esplotaziorako gune bilakatu, ez dadin lehentasun bakarra izan ostalaritza, Uliako parkea errespetatze aldera.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Basollua kafetegi-merendoari dagokion lehiaketa bidezko lizitazioan, inguruko eremuko balio naturalistikoak errespetatzeko proiektu bat izateko baldintza izan dezan, proiektuak ingurumenarekin lotutako jarduerak bere baitan hartuz eta jasangarritasuna sustatu eta erabilera komunitarioa ahalbidetu dezan.

Donostian, 2026ko urtarrilaren 23an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia